


6. FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Baliabide fisiko batzuk beharko ditugu proiektu hau aurrera eramateko, hauetan, lokal bat, ordenagailuak, wifi-a, arratoiak, teklatuak, kableak, mikrofonoak, kamara bat bideoak grabatzeko, arbel bat ere beharko dugu azalpenak emateko, eta liburuak beharko ditugu.

Giza baliabideetan, lau taldekide gara eta bakoitzak bere rola edukiko du, organigrama honetan azaltzen den bezala.



Finanza-baliabidetan, taldekideen artean, bakoitzak bere aurrezkietatik dirua jarri beharko dugu 1000€ inguruan lortzeko. Hau, aplikazioa Play Store-n argitaratzeko, wifia, eta ordenagailu batzuk erosteko da.